

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Interesdunari jakinaraztea (espediente zk.: 16011P-52/2016), helbide ezezaguna baitu, udalaren biztanle erroldan ofizioz baja emango zaiola arauz kanpo erroldatuta egoteagatik

Administrazio egintza jakinaraztea. Interesduna: Lemneia Emhamed Salec.

Erabaki hau ezin izan zaio interesdunari jakinarazi, orain duen helbidea ezezaguna delako. Beraz, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 59.5 artikuluan ezartzen duena betetzeko, aurretik eta aukeran ALHAOn eta udalaren iragarki taulan argitaratu ostean, iragarki hau BOEn argitaratuz jakinarazten zaio alkatearen 16/277P Ebazpena. Hona hemen, hitzez hitz:

“2016ko irailaren 13an, ebazpena eman zen (16/277P Dekretua). Hau da edukia, zuri dago-kizunez:

Udal honek jakin du, I. O. A.k, Justo Etxeguren kaleko 2 zenbakiko 4. B etxebizitzaren jabeak, 2016ko irailaren 7an aurkeztutako idazkiaren bidez, Lemneia Emhamed Salec arauz kanpo erroldatuta dagoela biztanleen udal erroldan, ez baita etxe horretan bizi eta, beraz, ez baititu betetzen Biztanle eta lurralde mugei buruzko Arautegiak, uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartu eta abenduaren 20ko 2612/1996 Errege Dekretuaren bidez aldatu zenak, 54. eta 68. artikuluetan xedatutako baldintzak.

Ikusirik udaltzainek horretarako egindako txostena, ondorioztatzen da pertsona hori ez dela bizi adierazitako helbide horretan.

Bat etorri erregelamendu horren 72. artikuluan xedatutakoarekin eta Estatistika Institutu Nazionalako lehendakariak eta Eskumenak autonomia erkidegoekin eta toki erakundeekin koordinatzeko zuzendari nagusiak biek batera 2015eko urtarrilaren 30ean emandako ebazpenarekin, zeinaren bidez udalei jarraibide teknikoak ematen baitzaizkie udal erroldak kudeatzearen gainean eta, zehazki, arauz kanpo erroldatuta egoteagatik bajak ematearen gainean, eta orobat aplikazio orokor eta bidezkoa dagokion gainerako legediarekin, alkate honek, aitortzen zaizkion ahalmenak erabiliz, xedatzen du:

Lehenengoa. Aurkeztutako eskaera izapidetzeko onartzea, eta ofizioz espedientea irekitzea Amurrioko Udalaren biztanle erroldan baja emateko behean zehazten den pertsonari, arauz kanpo erroldatuta baitago:

IZEN-ABIZENAK	AGIRIA
Lemneia Emhamed Salec	X-2492663-S

Bigarrena. Interesdunari ebazpen hau jakinaraztea udalerrri honetan izan duen azken helbide ezagunean, hamabost eguneko epean alegatu eta egoki jotzen dituen agiriak eta frogak aurkez ditzan, udalaren biztanle erroldan zuzen erroldatuta dagoela egiaztatzeko, edo erroldan duen egoera erregularizatzeke, udal honi jakinaraziz helbidea aldatu duela edo egun zein udalerritan bizi den.

Alkate lehendakariak agindu eta izenpetzen du. Amurrio, 2016ko irailaren 13a. Idazkari naizen aldetik, fede ematen dut.”

Alkatearen eta idazkariaren izenpeak eta errubrikak, biak irakurtezinak.
Jakin dezazun eta dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten dizut.”

Amurrio, 2016ko urriaren 4a

Alkate lehendakaria

JOSUNE IRABIEN MARIGORTA